



ABALTZISKETA

## **2016EKO EKAINAREN 14KO OHIKO BILKURAKO AKTA**

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19: 00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Aritz Garmendia. Zinegotzia

Felix Maioz. Zinegotzia

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Jose Maria Egunez. Zinegotzia

Kepa Gorostidi .Zinegotzia

Mikel Senperena . Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

### **GAI ZERRENDA**

1. 2016-04-26 bilkurako akta onartzea hala balegokio.
2. 2016 urteko landa garapeneko laguntzetara aurkezteko proiektuari onarpena ematea.
3. Ñañarri eraikinaren esleipenerako kontratazio mahaiak luzatutako proposamena onartzea.
4. Zalbiden sagardoa egiteko duen jarduera baimena gaur eguneko ustiatzailearen izenera aldatzea, Nekazaritza eta Elikadurako industrien erregistroan izena emateko.
5. San Juan jaietarako Udalak egin behar duen laguntza ekarpena erabakitzea.
6. Alkateak 2016/32 tik 2016/44 arte emandako ebazpenen berri ematea.
7. 2016ko 1. Seilabeteko zabor bilketa zerbitzuko erroldaren onarpena.
8. Galderak eta eskaerak.



ABALTZISKETA

## **1- 2016KO APIRILAREN 26EKO OSOKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO**

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-04-26ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

## **2- 2016 URTEKO LANDA GARAPENEN LAGUNTZETARA AURKEZTEKO PROIEKTUARI ONARPENAREN EMATEA.**

Euskadiko Landa garapena eta sustapenaren inguruko laguntzak, 2016ko maiatzaren 31ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara eman direla eta, Abaltzisketako udalaren jabetzako ÑAÑARRI eraikinean, egin behar diren egokitzapen hobekuntza eta ekipamendu lanak burutzeko, oinarritzko proiektua mahairatu da onarpena emateko.

Proiektuaren kostua, osotasunean, B.E.Z.a barne, 1.139.744,53 eurotakoa da. Aurrekontu oso honetatik, Udalaren zatia 576.997,73 eurotakoa da, eta adjudikatarioaren zatia 562.746,80 eurotakoa B.E.Z.a barne.

Udalari dagokion atala, era honetara finantziatzea aurreikusten da:

Landa garapeneko dirulaguntzetatik jaso daitekeen laguntza 375.048,52 eurotakoa aurreikusten da.

Gipuzkoako Aldundiak proiektu estrategikoetarako luzatuko duen deialdian proiektu berdina laguntzeko eskatu nahi da eta jaso daitekeen laguntza 101.949,21 eurotakoa izatea aurreikusten da.

Eta osatzeko falta dena, udalak 2016ko duen aurreikuspena eta 2015eko gerakinetatik 100.000 euroko inbertsioa egiteko konpromisoa hartzen da.



**ABALTZISKETA**

Guztiaren berri jakin ostean mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Abaltzisketako Udalak, ÑAÑARRIN, HOTELA, ATERPEA, TABERNA, JATEXEA, HARRERA GUNEA ETA BESTE ZERBITZUEN ESKAINTZA TURISMOA SUSTATZEKO oinarrizko proiektuari onarpena ematea.
2. Aipatu proiektuaren aurrekontua 576.997,73 eurotakoa dela, B.E.Z.a barne.
3. Eta 2016 urteko arrekontuan, dagokion kreditu aldaketari hasera ematea proiektua gauzatzeko.

### **3- ÑAÑARRI ERAIKINAREN ESLEIPENERAKO KONTRATAZIO MAHAIK LUZATUTAKO PROPOSAMENA ONARTZEA.**

Kontratazio mahaiek hartutako erabakiaren berri ematen da, luzatutako akta eskuratuaz.

“Udaletxeko Areto Nagusian, 2016ko ekainaren 9an, arratsaldeko 19:00etan, Kontratazio Mahaia eratu da administrazio-kontratu berezia esleitze aldera, hain zuzen ere, Nañarriren berrikuntza eta kudeaketa lanei dagokiena.

Honako kide hauek bildu dira:

Alkatea: Jon Zubizarreta

Udaleko idazkaria: Nekane Lopetegi. Botorik gabe eta fede emateko

Bokalak:

- Adur Gorostidi .
- Aritz Garmendia
- Felix Maioz



## ABALTZISKETA

Baldintza plegua 2016ko apirilaren 26ko bilkuran onartua izan zen eta zortzi egunez, lizitazioarekin batera jendaurrean egon da, aztertu eta dagokion alegazioak tarteratzeko.

Zortzi eguneko epean alegaziorik tarteratu izan bazen, lizitazioa bertan behera geratuko zen eta, alegaziorik tarteratu ez denez, lizitazioak aurrera jarraitu du.

Baldintza plegua eta lizitazioa jendaurrean jartzea 2016ko maiatzaren 17ko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen.

Eskaintzak aurkezteko epea, 2016ko ekainaren 6an amaitzen zen eta jasotako proposamena honakoa izan zen, 2016ko ekainaren 6an:

- Alexandra Egunez Zalacain, Ñañarri S.L sortze bidean dagoen enpresaren izenean.
- Beste proposamenik ez da aurkeztu.

Alexandra Egunez Zalacain Andreak, baldintza pleguan agertzen diren hiru kartazal aurkeztu ditu eta berauek ireki dira.

**A kartazalean, Dokumentazio administratiboa.** Eskatzaileak bere Nortasun agiriaren kopia eta idatzi bat agertzen ditu. Idatzi honetan zera esaten du: Ñañarri S.L sozietatea sortzeko lanak bideratzen ari dela. Eta eskritura publikoa berehala sinatuko dutenez, idatzi honi eransteko aurkeztuko duela. Aldi berean, orain arte ikasten jardun duten bi senideen sozietatea osatzen dutela eta gizarte segurantzza eta Foru ogasunean ez dutela inolako harremanik izan. eta horrela behar izan ez gero, eta esleituak suertatuko balira, Udalari baimena ematen diotela behar diren egiaztagiriak eskuratzeko. Eta proposamen bat ere aurkeztu du .

**B kartazalean, Bideragarritasun plana.** Kartazal honetan, bideragarritasun plana burutzen ari dela adierazten du. Bideragarritasun txostena amaitu ostean aurkeztuko duela eta derrigorrez egingo duela, laguntza batzuetara ere aurkeztu beharra duelako, esan du.



## ABALTZISKETA

**C kartazalean, proposamen ekonomikoa.** Baldintza pleguan agertzen den eredia erabiliaz, proposamen ekonomikoa agertzen du. Bertan, B.E.Z.a barne, hileko kanoa 1.452,00 eurotako izango da eta baldintza pleguan jasotako eduki osoarekin adostasuna agertzen du eta beteko duela ere zin egiten du .

Egoera honen aurrean , interesatua bakarra ageri dela ikusi da, eta hainbat dokumentu aurkeztea falta bada ere, nagusiena aurkeztu duela kontsideratu daiteke: baldintza plegua osotasunean onartzea eta eskaintza ekonomikoa egitea.

Horregatik, mahaikideek, proposatzen dute:

1. Esleipena Alexandra Egunez Zalacain andreari egitea, sortze bidean dagoen Ñañarri S.L. ren ordezkari gisa.
2. Falta den dokumentazioa osatzeko hamar egunetako epea ematea. Eta hamar egun pasa ostean dokumentazioa aurkeztu ezean, erabakia baliorik gabe uztea. Eta hamar egunetako epean dokumentazioa osoa aurkezten bada erabaki berrik hartu beharrik ez izatea.
3. Osoko Bilkurari erabakiaren berri ematea.

Mahaiburuak egintza bukatutzat jo du, eta horren guztiaren gainean, nik, Idazkariak, akta egiten dut. Fede ematen dut.

Abaltzisketan, 2016eko ekainaren 9an.

Alkateak

Idazkariak “

Kontutan hartuaz, administrazio-espeditentea bideratu da Ñañarri udal eraikinean zenbait berrikuntza eta hornikuntza lanak egin ostean, kudeaketa ustiatzeko administrazio-kontratu berezia esleitze aldera.

Kontutan hartuaz, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena egin du, proposamen bakarra aurkeztu da eskaintzaren alde, erabaki proposamena luzatu du zuzentzen duen administrazio-klausulen agirian ezarritako baremoarekin bat etorritz.



## ABALTZISKETA

Udalak bere aldetik ere, Ñañarriren egoerari irtenbidea eman nahian, interesa du, proposamen honekin aurrera jarraitzea. Horregatik,

### ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** Lizitazioa baliozkotzat jotzea eta Alexandra Egunez Zalacain Andreari esleitzea, hileroko 1.452,00 B.E.Z.a barne euroko kanonarekin, Ñañarri ustiatzeko administrazio-kontratu berezia.

**BIGARRENA.** Kontratua sinatu aurretik honako dokumentazioa eskatzea:

- Bideragarritasun plana. Eta bertan lan metodologi eta proposamena ere jasotzea.
- Sozietatea sortu izanaren eskritura publikoa.
- Jarduera ekonomikoan alta emana izatea.
- Foru Ogasuna, Gizarte segurantza eta Abaltzisketako Udalean zorrik ez izatearen egiaztagiria.

**HIRUGARRENA.** Alkate Jaunari ahalmena ematea kontratua gauzatzeko dagokion administrazio-agiria egiletsi dezan, aurreko atalean adierazitako dokumentu guztiak aurkeztu eta gainbegiratu ostean.

**LAUGARRENA.** Erabaki hau esleipendunari eta lizitatzaillei jakinaraztea eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratzea. Esleipendunari, orobat, errekerimendua egingo zaio, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak –Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duenak, SPKLTB– 151.4. artikuluan agintzen duenarekin bat etorritik, lizitatzaillei eta hautagaiei egin zaien esleipen-jakinarazpena jaso eta errekeritu diren dokumentu guztiak ekarri ostean bost egun baliodunetan kontratua gauzatu dezan.



ABALTZISKETA

#### **4- ZALBIDEN SAGARDOA EGITEKO DUEN JARDUERA BAIMENA GAUR EGUNEKO USTIATZAILEAREN IZENERA ALDATZEA, NEKAZARITZA ETA ELIKADURAKO INDUSTRIEN ERREGISTROAN IZENA EMATEKO.**

Olatz Garmendia Barandiaran Andreak, “Carpinteria metalica Garzen”en ordezkariak, Zalbide sagardotegia eta sagastiak hartu dituela eta honako eskaera luzatzen du: Bertako sagarrekin sagardoa egiteko baimena Nekazaritza eta Elikadura industriren erregistroan izena emateko. Eta aldi berean Zalbide sagardotegiaren jarduera ere bere izenean baimentzea.

Kontutan hartuaz, Zalbide sagardotegiak , sagardotegi lana eta sagardoa egiteko baimena 1992ko azaroaren 26ko Osoko Bilkuran jaso izan zuen, osasun sailak, Ingurugiro sailak ezarritako baldintzarekin batera.

Sagardotegi jarduerak jabetza aldatu badu ere jarraitu egin du, eta orain jarduera aldaketa egitea eskatzen da. Aldiz, sagardoa egiteko eta nekazaritza eta Elikadura industriako erregistroan izena emateko jarduera baimena eskatzen da.

Beraz, sagardotegi jardueraren titularitate aldaketa eta sagardoa egiteko jarduera ere baimentzea eskatzen da.

Kontutan hartuaz, Zalbide baserrian sagardoa egiteko eta sagardotegi jarduerarako baimena onartua zegoela.

Kontutan hartuaz, sagardotegi jarduera jarraitu egin dela eta sagardoa egiteko baimena eskatzen dela.

Kontutan hartuaz, Udaleko teknikariak bere garaian sinatu zuen aldeko txostena, berdina izango litzatekeela, inolako aldaketarik ez dagoelako.

Kontutan hartuaz, lehen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zela eta bizilagunei asmoaren berri azaldu zitzauela. Eta, ez dagoela aldaketa nabarmenik bizilagunen artean ere.



ABALTZISKETA

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Jaurlaritzak sagardotegi jarduerarako onartu zuen txostenean ezarritako baldintzak jakinaraziaz, baimena onartzea.
2. Osasun sailak sagardotegi jarduerarako emandako baimenean ezarritako baldintzak betearaztea, eta jarduera burutzeko baimena onartzea.
3. Sagardoa egiteko bete behar diren baldintzak Osasun sailak ezarriak betearaztea, eta jarduera burutzeko baimena onartzea.
4. Eta, jarduera lana hasi aurretik, gaurko eguneko ikuskapenak egin eta osasun sailari sagardotegi eta sagardoa egiteko jarduerarako txostenak eguneratu eta beraien kopiak udalari helaraztea.

## **5- SAN JUAN JAIETARAKO UDALAK EGIN BEHAR DUEN LAGUNTZA EKARPEN ERABAKITZEA.**

2016 urteko San Juan Jaien batzordeak festak antolatu dituela, eta festa hauen aurrekontua mahairatu da, dagokion laguntza bideratzeko.

2016 urtean tenis txapelketa bat antolatua dago eta txapelketaren finala San Juan jaietan ospatzea pentsatua dago. Txapelketa honen sariak aurten jai batzordeak moldatuko ditu, 2015 urtean baino ekarpen handiagoa udalak egiteko konpromisua duelako.

Mahaikideen aldetik, AHO BATEZ ERABAKI DA:

2016ko San Juan jaietarako 6.000,00 euroko laguntza batzorde antolatzaileari ematea, diru laguntza jasoko delako.

2016ko San Pedro eguneko jai eguna antolatzeko 550,00 euro aurreikustea, eta ordainketa hau udalaren gain izatea.





ABALTZISKETA

## **6- ALKATEAK 2016/32 TIK 2016/44 ARTE EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

- 2016/32: Hainbat ordainketa .
- 2016/34: Plusvaliaren likidazioa .
- 2016/35: Apirileko ordainketa .
- 2016/36: Basoa ateratzeko herri bide erabilera baimena . Azaldegia azpi
- 2016/37: Basoa ateratzeko herri bide erabilera baimena. Sasiain garate
- 2016/38: 2017rako herriko jai eguna .
- 2016/24: Iñaki Gorostidiren lizentzi eskaera.
- 2016/39: Maiatzeko ordainketak .
- 2016/40: Udal kideen dieta ordainketa .
- 2016/41: Garmendia Tolosa sendiaren nitxoa .
- 2016/43 eta 44: basoa ateratzeko herri bideen erabilera : Kareaga eta Zubeldi .

Alkatearen ebazpenak mahai gainean agertu dira eta guztiek jakinaren gainean geratu dira.

## **7- 2016KO 1. SEILABETEKO ZABOR BILKETA ZERBITZUKO ERROLDAREN ONARPENA.**

2016ko 1. seilabeteko zabor bilketa erroldari onarpena emateko proposamena mahairatzen da, ondoren, tasak kobratu ahal izateko.

Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araugintza Erregelamenduaren 41.18 artikulua betetzearren, 2016-01 zabor bilketa errolda onartu ondoren, errolda hori jendearen agerian jarri behar da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez. Halaber borondatez ordaintzeko epearen eta eraren berri ematen da, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Herrialde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzekoak, 78. artikulua eskatu bezala.



## **ABALTZISKETA**

Jendaurreko epea, hilabetekoa izango da, dagokionak erreklamazioak aurkezteko. Epea iragan eta alegaziorik ezean, dagoen bezala onartutzat emango da, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

Ordaintzeko epea, borondatezkoa, 2016ko martxoaren 2tik maiatzaren 2ra.

Aipatutako epean zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko dira eta horiei premiamenduzko erreklamoak, berandutza interesak, eta sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkie.

Mahaikidek **ERABAKI DUTE:**

2016-01 zabor bilketa erroldari onarpena ematea.

## **8- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

### **BAT.-**

Alkateak jakinarazi du, hainbat bilera egin ostean, eguzki farolak, sistema berri baten bidez kudeatuak jartzeko proiektu pilotuari onarpena eman ziola eta Hazi eta Udalaren arteko hitzarmena sinatua duela.

Hitzarmenaren xedea, landa eremuetan, sistema berri batekin hornitzen diren eguzki farolak jartzeko proiektu pilotua arautzea da. Hitzarmenak xede honetaz gain, Hazik, Abaltzisketako Udalari, proiektua gauzatzeko 24.000,00 euroko laguntza ematea onartzen du. Laguntzaren ordainketa era honetara egitea ere aurreikusi da:

% 50a hornikuntzaren kontratazioa egin eta zuritu ostean.

% 50a proiektua gauzatu eta zuritzen denean.

Hitzarmen honetan oinarrituta, Alkateak hiru proposamen eskatu ditu, lanen esleipena egiteko. Honetarako aurrez, herri batzarra ere egin zuen, asmoaren berri emateko eta farolak kokatzeko puntuak adosteko.



## ABALTZISKETA

Alkateak egindako gonbiteari erantzunez, honako proposamenak jaso dira:

EKIONA .....9 farol x 3.200,00 €..... 28.800,00 B.E.Z.a kanpo  
GABYL .....9 farol x 3.595,00 ..... 32.355,00 B.E.Z.a kanpo  
LDO..... 9 farol x 3.450,00..... 31.050,04 B.E.Z.a kanpo

Alkateak guztiaren berri eman ondoren, eman diren urratsak onartuaz, ERABAKI DA:

1. EKIONA enpresari 9 farolak kokatzeko esleipena egitea, 28.800,00 eurotan, B.E.Z.kanpo, hau da 34.848,00 eurotan B.E.Z. barne.
2. Hazi eta Udalaren arteko hitzarmena ontzat ematea, eta esleipena egiteko ere Alkatea baimentzea.
3. 2016ko aurrekontuan, proiektu hau gauzatzeko dagokion partida aurrekontuan aurreikusi eta kreditua txertatzea.

### **BI.-**

Alkateak jakinarazten du, Udalak Egido herri sailean bi pinudi handi dituela eta horren balorazioa baso elkarteko teknikariarekin eginga duela.

Lan hauetan hasi aurretik, Aldundiako mendi saileko Zuzendariari, baimena eskatu behar zaiola eta eskaera hori egitea proposatu du. Eta mahaikideen aldetik, eskaera egitea onartu dute.

### **HIRU .-**

Euskal autonomia erkidegoko administrazioaren arteko hitzarmena, informazioa, administrazioa eta kudeaketa elektronikoaren esparruan zerbitzuak elkarri emateko helburuarekin, sinatzea proposatu da.



ABALTZISKETA

### **Sinatzaileak:**

Hitzarmenaren sinadura, alde batetik, Josu Iñaki Erkoreka Gervasio, Herri Administrazio eta Justizia sailburu Jaunak sinatuko du, Lehendakariak abenduaren 15eko 20/2012 emandako dekretuaz baliatuaz eta bestetik Udaleko Alkatea den Jon Zubizarreta Aldaia jaunak sinatu behar du. Honetarako Osoko Bilkurak onarpena eman behar dio.

### **Helburu nagusia:**

Hitzarmenaren helburu nagusia, bi administrazioen artean dituzten bete beharrak, herritarrei intereseko zerbitzuak eskaintzea, eraginkortasuna bilatzea baliabide publikoen erabileran, eta administrazio –tramitazioa sinplifikatzea, gardentasun, parte hartze eta lankidetzaren printzipioekin bat etorriaz.

Eta hau betetzeko hitzarmen eredia igorri dute guztiaren berri jakin ostean,

### **ERABAKI DA:**

1. Hitzarmenaren helburua onarpena ematea.
2. Hitzarmen eredia onartzea.
3. Hitzarmena sinatzeko Alkatea baimentzea.

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman du Alkateak, gaueko 21:45 etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak